

**BERPIZTU PROGRAMAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN BILERA**  
**REUNIÓN DEL CONSEJO RECTOR DEL PROGRAMA BERPIZTU**

2023-03-28 Lehendakaritza 28-03-2023

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Lehenik eta behin, eskerrak emanez da bilera honetan parte hartzeagatik, hain laburra izan den parte hartze honetan, baita aurkezpenengatik eta izandako azalpenengatik.

Berpiztu, Lehentasuneko Jarduketa Zonaldeak ikusi egin dugun bezela, eta Euskadi Next Programen bilakaera, egoera, emaitzak eta prebisioak ezagutu ditugu.

Lehen aipatu egin den bezela, ondo dakizuenez, duela hamar urte, 2013an hain zuzen ere, eta hor daukagu pantailan, onartu genuen Ekonomia eta Enplegua suspertzeko lehenengo Programa. Hau zen, eta izaten jarraitzen du, partekatzen dugun lehentasuna.

Askotan, komenigarria izaten da begirada atzerago botatzea nondik gentozen ikusteko eta gaur egun non gauden hobeto baloratzeko, eta gaurko bilera ariketa hori eginez amaituko dugu.

Hamar urte hauek, denok dakigun bezala, “gogorak” izan dira. 2013an krisi finantzario globalaren eragina jasaten ari ginen, ekonomian eta lan munduan ondorio larriak izan zituenak eta handik aurrera ere hainbat krisi jasan eta ezagutu ditugu: Brexit-a, errefuxiatuen krisia 2015ean, pandemia, Ukrainako inbasioa, krisi energetikoa edo inflazioa, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, denon artean, ehun ekonomikoarekin eta baita hor ikusten den, nolabait, hor ez da azpimarratzen, baina baita hirugarren sektorearekin batera, auzolanean, krisi horiek gainditzeko ahalmena erakutsi dugu.

Hamar urte ondoren, 2013tik gaurkora baldin badatoz, datuak onak dira. Euskadi azken hamar urte hauetan hazi egin da eta enplegua sortu du. Gure egoera, beraz, positiboa da.

La evolución económica y social de Euskadi en estos últimos diez años ha sido positiva:

- El Producto Interior Bruto de Euskadi ha aumentado un 30%;
- La producción industrial ha crecido un 31%;
- Las exportaciones han crecido un 57% y superado los 32.000 millones de euros;
- Contamos con 400 empresas más que hace 10 años;

-Todo ello lo hemos conseguido reduciendo el déficit en un 144%. Así, hemos sido capaces de hacer frente a nuestra deuda.

Además, hemos generado EMPLEO:

- Langabezia tasa %43an gutxitu dugu azken hamar urte hauetan. Gure helburua %10tik jaiste zen eta, gaur egun, zortzi eta erdian dago;
- Gizarte Segurantzaren dugun afiliazio maila historian izan dugun handiena da eta milioi bat pertsonetara iristeko aukera posiblea da;
- Lanbiden, gaur egun, duela 10 urte baino 57.000 lagun gutxiago dago izena emanda, hau da, %33 gutxiago.

Datuak, beraz, esan bezala, oso positiboak dira.

Euskadin ekonomia eta enplegua BERPIZTU egin direla nabaria da eta hala ere, badugu zertan hobetu eta hobetzen jarraitu behar dugu.

Ezin gara orain arte hemen eman diren azalpenak entzunda, ezin gara honetan geratu eta lehiakortasuna eta kalitatezko enpleguak direlarik helburu, hori indartzen jarraitu behar dugu.

Bide honetan, elkarrekin egiten ari garen ahaleginari eutsi behar diogu.

Eskerrik asko!